



**Ikerketa eta sorkuntza
egonaldiak 10. Deialdia**
WIKIRIKI 2026

WIKIRIKI



Deialdi hau Wikitokik antolatzen du Bilboko Udaleko kultura sailaren babesarekin.

Wikitokitik esperimentazio irekiaren aldeko deia egiten du eta horretarako, **ikerketa eta sorkuntza egonaldien deialdia abiatu du**. Deialdia, diziplinaz gaindikoa da, elkarlanaren inguruko hainbat alderdiren eta aurrean ditugun erronka eta trantsizioen inguruan jorratzeko.

Wikitoki Elkartea
Harrobi Plaza, 5- 2º
48003 Bilbao
wikitoki.org
[@wiki_toki](https://www.instagram.com/wiki_toki)

OINARRIEN LABURPENEA

Proposamenen izaera: WIKIRIKI izaera esperimentaleko eta diziplinarteko proposamenetara zuzenduta dago, edozein formatutan. Proiektu berriak edo dagoeneko martxan dauden proiektuak aurkeztu daitezke, baita Wikitokiren esparruan fase berri bat edo horien zati espezifiko bat garatu dezaketenak.

Nori zuzenduta daude: Egonaldiak mota guztietako pertsona eta kolektiboek zuzenduta daude (formalak eta informalak), jatorria edozein dela ere, ikerketa, sorkuntza eta/edo sormen aplikatuarekin lotuta badaude.

Gaiak: WIKIRIKI elkarlanaren inguruko proposamenetara zuzenduta dago. Proposamenen gaiak nolabaiteko lotura izan behar dute Wikitokiren ikerketa-lerroekin

Informazio gehiago: 7. orrialdean, Zeintzuk dira WIKIRIKIren ezaugarri nagusiak.


Baliabideak: Proiektu bakoitzeko gehieneko aurrekontua: 2.200€ (zergak barne) + Wikitokiko espazioetara sarbidea eta baliabide material zein immaterialak erabiltzeko aukera + egonaldian zehar bidelaguntza eskainiko da. Guztira 4.400 €-ko aurrekontua, gutxienez 2 proiektu garatzeko.

Epeak: Proposamenak aurkezteko epea 2026ko irailaren 14etik urriaren 4ra izango da (biak barne), bigarren dataren 23:59ak arte. Proiektuak 2026ko irailaren 14etik abenduaren 18ra bitartean garatuko dira.

Formulario: <https://my.liberaforms.org/2026-wikiriki-eus>

Zalantzarik?

Idatzi Isabel Tomás Pérez-i korreo elektroniko bidez helbide honetara: info@wikitoki.org



NORTZUK EGITEN DUGU DEIALDI HAU?

Wikitoki Elkarsorkuntzarako Laborategia praktika kolaboratiboen laborategia gara. Esperimentazioaren, sorkuntzaren eta gizarte-berrikuntzaren arteko topagunea da, eta, bertatik, eragileen eta diziplinen arteko elkarrietzeta eta hibridazioa bilatzen dugu, aurrean ditugun erronka konplexuei eta trantsizioei heltzeko.



Hainbat arlotan lan egiten duten **profesionalen komunitate irekia** gara: testuinguruko arteak eta kultura-bitartekotza, arkitektura eta hirigintza, prozesuen eta esperientzien diseinua, gizarte-zientzia esperimentalak, osasunaren kudeaketa kolektiboa, ingurumen- eta gizarte- ekologia, teknologia libreak eta datu irekiak, komunikazio transmedia, etab.

Wikitokiren eta eratzen duten eragile inguruan gehiago jakin nahi izatekotan:

Ikusi gure webgunea: <https://wikitoki.org/eu/zer/>

Ikusi [Wikitoki zer den](#) eta [Wikikrazia, gure elkarlaneko gobernantza](#).

Entzun [Wikisoinuak](#), Wikitoki podcastak

Irakurri [“Talde kontakizun bat”](#)




ZEINTZUK DIRA DEIALDI HONEN HELBURUAK?


Esperimentazio irekirako deialdia da WIKIRIKI. Egonaldi-deialdi honek honakoa bilatzen du batez ere:

Pertsonak eta taldeak gonbidatzea modu esperimentalean (aplikatuan zein ez-aplikatuan) jardutera

Wikitokiren ikerketa-ildoekin edo elkarlanaren inguruko arazo zehatzekin harremana duten zenbait aspektuei buruz.



Ikerketa eta sorkuntzarako baldintzak erraztuko dituen **abegi oneko ingurunea bultzatzea**, ezagutza, baliabide eta proiektuen ekoizpena eta trukea sustatuz, baita **elkarlanaren inguruko eragile eta praktikak ikusaraztea eta balioan jartzea**, zentzu zabalean.



Wikitoki komunitatearen harreman-espektroa zabaltzea eta, era honetan, eragile gehiagoren arteko elkar-ezagutzea ematea, bazkide eta kolaboratzaile berriak bilatuz; auzoarekin harreman handiagoa izatea; esperientziaren eta ezagutzaren transferentzia; beste esparru batzuekiko konexioa, etab.




ZEINTZUK DIRA WIKIRIKIREN EZAUGARRI NAGUSIAK?

NORI ZUZENDUTA DAGO DEIALDIA

WIKIRIKI lehia askeko egoitzen deialdia da, eta **mota guztietako pertsonak eta kolektiboek parte hartu dezakete (formalak eta informalak)**, baldin eta ikerketa, sorkuntza eta/edo sormen aplikatuarekin lotuta badaude. Ez zaigu axola diziplina-esparrua, proposamena baizik. Testuinguruarekiko hurbiltasuna eta harremana lehenesten ditugun arren, deialdia edozein jatorritako pertsona eta kolektiboek irekita dago.

Garrantzitsuena da hautagaiek beren motibazioa helaraztea eta Wikitokiren filosofiarekin eta inguruarekin bat etor daitekeen proposamen bat aurkeztea. Horretaz gain, parte hartzeko ez dago faktore murriztailerik adinari, generoari, jatorriari edo aurretiko esperientziari dagokienez. Baina Wikitokik aniztasunari dagokionez sustatzen ditugun jardueren oreka zaintzen du.



IZAERA ESPERIMENTALA ETA LANDU BEHARREKO GAIAK


WIKIRIKI deialdia izaera esperimentaleko eta edozein formatuko proposamenetara zuzenduta dago, zuzenean edo zeharka, Wikitokiren ikerketa-ildoekin harremana dutenak. Oro har, batzen gaituena gure aritzeko moduak dira, KO- dena lotura komun gisa (kolektiboa, kolaboratiboa, kooperatiboa, komunitarioa... dena) eta espiritu esperimental zein eraldatzailea dituztenak. Eta honakoa lantzen dutenak:

- Trantsizioan dagoen mundu baterako alternatibak (proposamen espekulatiboetatik zehatzenetara eta aplikatuenetara).
- Antolatzeko, gobernatzeko, ekoizteko eta jabetzarako moduak, burujabeagoak, irekiagoak, banatuagoak, parte-hartzaileagoak eta elkarlanekoagoak.
- Bizitza erdigunean jartzen duten erreproduktzio sozialeko ereduak (harremanetatik, afektuetatik eta zaintzetatik edo etika feministatik abiatuta, pribilegioak, desberdintasunak eta botere-harremanak sortzen dituzten faktoreen intersektionalitatea kontuan hartuta).
- Baterako bizitzarako habitatak, ekologia-klabeetan, ingurumenaren, gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren dimentsioetatik, permakultura, iraunkortasuna eta/edo zirkulartasuna uztartuz.
- Wikitoki kokatzen den auzoko (Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala) testuinguru soziokulturalarekin eta eragileekin lotutako proposamenak.
- Wikitokiko komunitatearen aniztasun handiagoa sustatzeko ekintzak (nortasunari, generoari, etniari, jatorriari, bizi-ibilbideei... dagokienez).
- Wikitokin euskara erabiltzea normalizatzeko ekintzak.
- Sortzen ari diren teknologien erabilera kritikoa (adimen artifiziala, gauzen interneta, datu irekiak, errealtate birtuala eta gehitua, blockchaina...) jardunbide parte-hartzaileetan eta elkarlanekoetan.
- Izaera fisiko edo bisuala duten esku-hartzeak Wikitoki espazioan (gune komunak, bainugela, patioa...).
- Jolasa dinamika gisa,, tresna gisa, mundua interpretatzeko eta bizitzeko modu gisa.



Zerrenda honek helburu dugun proposamen mota kokatzen laguntzeko asmoa du, baina ez da baztertzailea. Deialdia elkarlana beste ikuspegi batzuetatik aztertzen duten proposamenetara irekia dago, eta, gertatu ohi den bezala, askotan bilatzen ari garenaren eta eskatzeko gai garenaren artean desberdintasunak daude.

Proiektuek edozein formatu izan dezakete, gutxi gora behera konbentzionalak badira: ikerketa aplikatua, joko bat, altzari bat, dinamika performatibo bat, fotoelektriko bat, talde-esperimentuak, ospakizuna, bideo-tutoriala, errezeta liburua, app bat, ikasketa-komunitatea, abesti batzuk, txango bat,...



Proiektu berriak edo abian dauden proiektuak ere izan daitezke, horien fase berria edo alderdi zehatza Wikitokiren esparruan garatzeko aukera baldin badago.


Azkenik, **gomendio** orokor gisa, Wikitokin **GAUZA GUTXIAGO, KONTU HANDIAGOZ** printzipioa defendatzen dugu (kalitatea lantzea, xehetasunak zaintzea, zerbaiten sakontzea, proposamen baten zenbait iterazio egitea,...). Eta egonaldiekin dugun aurreko esperientzia kontuan hartuta, orokorrean, proposamenek hobeto funtzionatzen dute fronte ugari ukitu ordeztu esperientziaz zerbait zehatzera bideratzen badute.

WIKIRIKI! ↓

EMAITZAK

WIKIRIKI izaera esperimentalak dauka; hortaz, ez da emaitza zehatzik edo aurrezarritakorik espero; baina bai egonaldian proposamenaren garapena edo proposamena testatzea nabarmentzen duen prozesua garatzea.

Aurrerapen horrek egonaldiaren **amaierako itzulkina edo entregagaia sortu** behar du, eta horren ezaugarriak askotarikoak izan daitezke eta proposamen bakoitzaren izaeraren arabera izango dira.



Sortutako lanaren jabetza egilearena izango da, baina bere osotasuna edo zati esanguratsu bat **lizentzia askepean** eskuragarri egon beharko da (adibidez, Creative Commons, GPL,...), egindakoa berrerabiltzea, hobetzea eta transferitzea baimentzen dutenak.

Gainera, laguntza honekin egindakoari erreferentzia egiten dion edozein argitalpen fisiko edo digitaletan, honako legenda hau sartu beharko da:

Wikitokin WIKIRIKI esparruan garatutako proiektua, Bilboko Udalaren kultura sailaren babesarekin antolatua.





BALIABIDEAK

WIKIRIKIrekin, Wikitokitik, denbora askatzeko, baliabideak mobilizatzeko eta esperimentaziorako ingurune egokia aurkitzeko baldintzak eskaini nahi ditugu.

Deialdi ireki honen garapenerako aurrekontua **4.400€-koa da (zergak barne), gutxienez 2 proiektu garatzeko. Proiektu bakoitzak, gehienez, 2.200€-ko aurrekontua izango du.**

Ordainketa faktura bakar baten bitartez egingo da: %50a hasieran ordainduko da, eta gainerako %50a egonaldia amaitzean.



Wikitokik bere espazioetara sarbidea ere eskaintzen du (proiektuak eskatzen duen heinean eta ohiko erabilera eta ordutegien arabera erabiliak), **baita beste** baliabide material edo ez-materialak. Egonaldian zehar bidelaguntza ere eskainiko da, (laguntza hori proiektu bakoitzaren izaeraren araberakoa izango da, eta kasu bakoitzean egokitu egingo da – gutxienez hasierako bilera bat eta bitarteko beste bat barne hartuko ditu –).



KOMUNIKAZIOA ETA AURKEZPENA

Wikitokin elkarlanean, irakaskuntza partekatuan eta kode irekian aritzen gara.

Talde-adimenean, ekintzetan eta zentzuen mailen baturan sinesten dugu.

Horregatik, prozesuak zein emaitzak partekatzeari ematen diogu garrantzia. Esperientziak komunikatzeko eta partekatzeko espazioak eta momentuak sortzen ditugu.



Logika horretan, WIKIRIKIn aukeratutako eragileek honakoa hitzemango dute:

- **Abenduaren 17n, 18:00ean, aurkezpen publiko bat** egitea, egonaldiaren emaitzak partekatzeko.
- **Prozesuan zehar egindakoa jakinarazteko eta emaitzak aurkezteko materialak** ematea (irudiak, testuak, eskemak...). Komunikazioa, batez ere, Wikitokiren webgunean, sare sozialetan eta hedabide digitalen bidez egingo da.
- Proiektuarekin lotutako edukiak sortzeko **prestutasuna izatea**.
- **Lizentzia libreak erabiltzea** dibulgazio- eta komunikazio-edukietarako.



NOLA PARTE HARTU?

AURKEZTEKO MODUA

Eskaerak **FORMULARIO** honen bidez aurkeztuko dira

Egin klik hemen:

<https://my.liberaforms.org/2026-wikiriki-eus>



KRONOGRAMA

- **2026/09/14 - 2026/10/4:** Deialdia eta proposamenen aurkezpena.
- **2026/10/5 - 2026/10/12:** Proposamenen hautaketa.
- **2026/10/13:** Hautatutako proposamenen iragarpena
- **2026/10/14 - 2026/12/16:** Proposamenen gauzatzea
- **2026/12/17:** Eraitzen aurkezpena



EPAIMAHAIA ETA AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

Wikitokiren kide aktiboz osatutako komitea arduratuko da proposamenak balioesteaz eta aukeratzeaz.

ONDORENGO IRIZPIDEAK ERABILIKO DIRA:

- **Proposamenaren egokitasuna**, Wikitokiren izaerarekiko eta haren ikerketa- eta interes-ildoekiko (gaia, formatua...)
- **Berrikuntza-maila**: esperimentaltasun-maila, landu beharreko gaiaren egungo egoerari egindako ekarpena, antzeko proposamenekiko balio bereizgarria.
- **Bideragarritasuna** eta egokitasun maila, eskura dauden baliabide eta bitartekoei dagokienez (aurkeztutako kronograma eta aurrekontuaren arabera).
- **Aniztasuna**, proiektuen tipologiari eta diziplina-esparruei dagokienez, baita aukeratutako eragileen adinari, generoari, jatorriari edo aurreko esperientziei dagokienez ere.

*Aipatzen ari garen egonaldi-mota hobeto ulertzeko, 2016 eta 2025 urteen artean Wikitoki Egonaldietan garatutako proiektuak kontsulta daitezke esteka honetan:

<https://wikitoki.org/eu/egonaldiak/>

Beharrezkoa izatekotan, epaimahaiak eskatzaileei edonolako argibide, zehaztasun edo informazio osagarria eskatu ahalko die, proposamena modu egokian balioesteko.



ESKERRIK ASKO!



VIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia
Laboratorio de prácticas colaborativas

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO